

Oseba apezak gerla ondoan marinelen alde egin lana

M.: voilá, voilá, ta hala-ala, ez dakit zertako, bena gerlatik landa, oai berriz hortaatzen gira, bena ene oseba apeza mariñelen aumônier ua-ta joan zien Bilbaorat. Bazuzten arrainkako motorrak berriak, eta piezaik ezin izan Frantzian, ta han erosi zuzten, eta otoan ezarri zuzten, eta apeza jarri zen ene ose... Ene emaztiain oseba ezarri zen pieza en gaiñian bere sotana aundia han largo-largoa, ta brevierra eskian, eta juntan: “bauzie zeit deklaatzeko?”, “ez, ez, ez, deusik deusik”, putrsa, ez zuten apez ua desarreñaazi nai antik, are, pastu zen! (irriak), ta mariñelek ola ukan zuten beren untziain arreñatzeko pieza, hua, berriz, hantik jin zen.

E.: bena apez hua re zer... Erran nai dixit eta jendakien aldekoa, ta jendeen laguntziain aldekoa, ta...

M.: ah ba, ba, ba, mariñelekilakoa.

E.: guziak ez zitxun ola izain, eh?

M.: eta mariñelak untziak erosi duzte haikilan-ta. Joan zien Paiseat, ministeriat, eta erran zeen eskuintiarer, alo, hain adixkideer, bana mariñel guziak e, joan bear diau, bazien komunistak, baizu, gorriak biziki, eh, mariñeletan, “hek e bear tiau”, pua, pentsa, hua joan zen ta hek bildu zitien, ereman. Hek puxka at aparte, ta bixtan dena, bestek e, berek e bereixten zuzten, eta denen izenian ai izan zen, ta suventioniak izan zuzten eta barko ttipien haundiago iteko, ta baizu, ta behar zen tresnendako.

E.: beraz, arrunt jendekilakoa.

M.: orduz gero, komuniste guziek “jaun apeza”, “jaun apeza”, anartian *koak, koak* iten zakoten, bena hua ez baitzen beldurti, bein ezarri zien bervierra sakolan, ta “na ukalaik augi!”. Bestiak jauziak in zitien. Azkarra zen, eh!

E.: ikus zezaten guziak ez zirela...

M.: baizu oai nor den aumônierra?

E.: ez.

M.: Zepaltza edo nola du izena? Animaleko apez bat da, eh ben, gure oseba berdina zen, ba, ba.

E.: ta ori zien oseba zuxun?

M.: ba, ba, emengo semia.

E.: beraz, aphez guziak ere ez zirela... Bazitxun aphezak eta aphezak.

M.: ah ba.

E.: denak ez zitxun berdin.

M.: horrek ina zien Erroman hiru urte teologia ta denak, eh uh, bazien eskola, iziarri aisa ai zen, bazien bertze aneia re apez zena, bena liferent, bon hua re profesor-eta egon zen eskolan, ta benan ua ertorioan zen ta hoita amairu urtetan kanzerraikin adieu, hara, ta hau bizi izan da hirutan oita hamar urte bizi izan da, iiztaria, eh!

E.: maite zixin, eh? Ihizian artzia re, eh?

M.: erotzen zen.

E.: bazitxun klase guzietako apezak, eh!

M.: ba, ba, ez zen hari urritan erran bear Paiseat joan bear zela ministeriat, seurro. Urria bear zien beetako, maite zien.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala